

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BILTZAR, JARDUNALDI ETA HITZALDIETAN
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO
DEIALDIA
2025**

ATARIKOA

UPV/EHUren eginkizun garrantzitsuenetako bat da euskarak komunikazio espezializaturako behar dituen hizkuntza-baliabideak sortzea eta erabileran ezartzea. Horretarako, nahitaezkoa da espezialitate-alorrez alorreko adituek euskara erabiltzea askotariko komunikazio-egoeretan, irakaskuntzan ez ezik, adituen arteko komunikazioan ere. Nolanahi ere, komunikazio espezializatua nazioarteko edota lekuan lekuko komunitate eleaniztasunen artekoa izan ohi da. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, maiz baztertuta geratzen da horrelako komunikazio-egoeretan, euskaraz ez dakiten solaskideak parte hartu ohi baitute. Hala ere, badira nazioarteko biltzar eta jardunaldiak parte-hartzaileei hainbat hizkuntza erabiltzeko aukera ematen dietenak. Badira horrelako biltzar eta jardunaldietan euskararen presentzia sustatu nahi duten antolatzaileak ere, eta horiei bitartekoak eskaintzea da deialdi honen helburua.

2024ko maiatzean Gobernu Kontseiluak onartutako UPV/EHUko Euskararen IV. Plan Gidarian (2023-2027) "Kultura eta gizartea" ardatzean zerrendatutako helburuen artean dago unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitzeko helburua.

Hori dela eta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak deialdi hau argitaratzen du hainbat hizkuntzatan aurrera eramango diren biltzar, jardunaldi eta hitzaldietan euskararen presentzia sustatzeko.

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdiaren xedea da 2025. urtean biltzar, jardunaldi eta hitzaldietan euskararen erabilera erraztea eta sustatzea, euskaraz ez dakiten parte-hartzaileek euskarazko hitzaldiak eta aurkezpenak ulertu ahal izateko baliabideak eskainiz.

2. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Deialdian parte har dezakete hainbat hizkuntzatan aurrera eramango den eta euskarazko komunikazioa onartuko duen edozein biltzar, jardunaldi edo hitzaldiren antolakuntzan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileek.

3. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA FINANTZIATUKO DIREN KONTZEPTUAK

Eskari bakoitzeko esleituko den gehieneko zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da.

Deialdi honetan diru-laguntza eska daiteke hainbat hizkuntzatan aurrera eramango diren eta euskarazko parte-hartzeak ere onartuko dituzten biltzar, jardunaldi eta hitzaldietan euskararen presentzia bermatzeko, ondoko kontzeptu hauetarako:

a.-Aldibereko interpretazioa

b.-Erreprografia (kartelak, posterrak, esku-orriak...)

d.-Euskarazko kultur emanaldiak, biltzar, jardunaldi edo hitzaldiak osatzen dutenak: bertso-saioak, musika, antzerkia, ...

4. ESKARIEN AURKEZPENA

4.1. Aurkezteko tokia. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluaaren arabera, dokumentuak modu honetara aurkeztu beharko dira:

UPV/EHUko erregistro elektronikoan, URL helbidean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan aurkeztuz (U02000384)", zehaztu behar delarik 'Eskatzen du' atalean "Biltzar, Jardunaldi eta Hitzaldietan euskararen erabilera sustatzeko deialdia 2025".

4.2. Beharrezko dokumentazioa:

- Eskaria**, deialdi honekin batera doan inprimakia, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzako webgunean eskura daitekeen eredua erabiliz.
- Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Berori epean eta forman aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoia izango da.
- Ekitaldiaren egitaraua, batzorde antolatzailearen zerrenda eta deialdiaren txostena.
- Ekitaldiaren aurrekontua.
- Ekitaldia beste laguntza batzuekin diruz lagunduta badago, emandako edo eskatutako laguntzen dokumentazioa.

4.3. Eskaerak aurkezteko epea: 2025eko azaroaren 10era arte (hori barne).

5. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

5.1. Eskarien ebaluazioa eta ebazpena

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak jasotako eskariak aztertuko, eta 5 egun balioduneko epean jakinaraziko die interesdunei behin-behineko ebazpena.

Eskatzaileek hamar egun baliodunen epea izango dute alegazioak egiteko.

Alegazioen ebazpena 5 egun baliodunen epean egingo da, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan jasotzen den egunetik zenbatzen hasita

Behin, 10 egun balioduneko epea igaro eta alegaziorik jaso ez bada, ebazpena behin-betiko izango da.

5.2. Ebaluazio-irizpideak.

Ebaluazio-irizpideak hurrengo taulan zehazten dira.

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1. Biltzar, jardunaldi edo hitzaldian euskarak izango duen presentziaren %	30
2. Aurreikusten den parte-hartzaile kopurua	30
3. Biltzar edo jardunaldia nazioartekoa izatea	20
4. Euskarazko kultur emanaldi osagarriak	20
GUZTIRA	100

Laguntza lortuko bada, eskabideak gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu.

5.3. Behin betiko ebazpenaren aurkako errekurtsioak.

Behin betiko erabakiak administrazio-bidea agortzen du, eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, baina inola ere ez aldi berean erabilia:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio-errekurtso hori jarritz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa administrazio-isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio-auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

6.- DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Behin ekitaldia eginda, eta egiaztagiria eta dokumentazioa aurkeztu ondoren, fakturak helarazi beharko zaizkio Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari, ordainketa egiteko. Fakturen zenbatekoak bat etorri behar du esleitutako diru-laguntzarekin.

Gauzatutako gastuen justifikazio gisa, egindako ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira, 15 egun balioduneko epearen barruan, jarduera amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- i. Jatorrizko fakturak, UPV/EHUren izenean eta haren identifikazio fiskala daukatela (Q4818001B).
- ii. Biltzar, jardunaldi edo hitzaldiari buruzko txosten xehea. Txostenean egindako jardueri buruzko ebidentziak bildu behar dira: kartelen, posterren edota esku-orrien irudiak, bideoen edo audioen estekak, sare sozialen mezuak etab.

7. BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntza hau bateragarria izango da biltzarrek, jardunaldiak edo hitzaldiak antolatzeke UPV/EHUren barruko edo kanpoko beste diru-laguntza batzuekin.

AZKEN XEDAPENA

Honako deialdi hau Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2025eko maiatzaren 12an.

Miren Igone Zabala Unzalu
Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordea